

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

*Antolatutako ekitaldien artean, tailerrak, erakusketak eta bi film*

Asteartea, 2018.eko urtarrilak 2

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu urtarrilaren 2tik 7ra bitarteko asterako:

Nafarroako Museoak eguberriko tailerrak hartuko ditu Bitartean-en eskutik, astearte, asteazken, ostegun eta ostiralean, 10:00etan. “Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerrena” erakusketa-



'Ni (emakume) artista' proiektuaren irudia.

proiektuaren barruan kokatzen da jarduera, eta ondokoa du osagarri aste honetan: bisita gidatua Nafarroako Museora, igandean, 12:30ean, Mireya Martín, Sofía Albero eta Eva de la Vega-ren eskutik. Proiektu beraren barruan, Oteiza Museoak [“Ni \(emakume\) artista”](#) familia-tailerra hartuko du igandean, 11:30ean. Karlismoaren Museoak (Lizarra), aldiz, [“Tea en la azotea”](#) familia-tailerra hartuko du ostegunean, 11:00etan, 5 eta 14 urte bitartekoei zuzendua.

Nafarroako Filmotekak bi hitzordu eskainiko dizkigu aste honetan, 20:00etan: asteazkenean, [“De entre los muertos \(Vertigo\)”](#) filma proiektatuko du “Alfred Hitchcock oinarritzkoa” zikloaren barruan, eta, ostegunean, [“La venganza de Don Mendo”](#), Fernando Fernán Gómez-ena.

Esteka honetan duzu kultur [programazio osoa](#):